

DEÑOKA'TAR GOSERIO

¡UTZI BEARKO!

ATAL BATEKO ANTZERKIA



DONOSTIA'N
MARTIN, MENA Y COMP.^o'REN ETSEAN
Fuenterrabía, 14, beko gelan

—
1919

DEÑOKA'TAR GOSERIO

¡UTZI BEARKO!

ATAL BATEKO ANTZERKIA

DONOSTIA'N
MARTIN, MENA Y C^a'REN ECHEAN
Fuenterrabia, 14, beko gelan

1919

¡UTZI BEARKO!

IRUDIGILLEAK:

Erretratista	Moskorra
Lino	Konkorra
Luis	Ichua
Mutikoa	Tomas
Ijitoa	Kalegarbitzaileak
<i>Dardarizo</i>	

I

Errerratista baten lantegia. Erretratista lanean ari da bere maian, ta Luis eta Lino, bere laguntzalpeak, beste batean.

ERRETRATISTA, LUIS ETA LINO

ERRE. (Zutik jarriko da bat-batean, eta paperak botako ditu mai gañera aserre-antzean) ¡Langintza dek, ba, auše ere! Bi illabete besterik ez dira ontan asi nitzala, ta guziak anka gora botata joango nitzake. Asi baño len ikusi bear nuan nik ni bezelako gizon bat ez dala erretratista izateko jaio.

Job santuaren pazientzia ere gutxi da askotan. Iñork ez du uste dan baño obeto ateratzen danik: beti gaizki irtetzen dirala iduritzen zaiete: gizenegi daudela, igerregi daudela, begiak ala, begiak orrela... Batak aitzaki bat, bestiak beste bat... ¡Dijoazela guziak eun milla zaldizkoekin!

Izan ere ¿nola aterako dira, ba, ondo? Batek zerura begira jarri nai duala; besteak, inpernura begira, okotzarekin bularra joaz; bat ao zabalik, bestea muturra okertuta... Ta ezin itzik esan iñori... «la, zaude apur batean zuzen; begira zazu onuntz...» ¡Baita zera ere!

Orduan da okerrago: gora begira parrez, edo aurrean daukatenai kiňuegiňaz, edo kokotia emanaz.. Ni beintzat Santa Ageda-bidean jarri naute. ¡Jesus! Orrela ezin bizi liteke. (Langilliei) Oek danak zuentzat utzita, banua ni emendik beste toki batera, bestela, zoratuko naiz-ta...

II

LINO TA LUIS

LINO	¿Entzun al dek?
LUIS	Bai, motell.

LINO Guk nai deguna iristeko, gaurko egun au bezin egokirik etzaiguk etorriko.
LUIS ¿Zer? ¿Lantegia guri ematea?
LINO Bai ba. Berak nai duna esango dik, baña au langintz ona dek, motell. Ontan
asko irabazten dek. Orrek ez; zital ernegatu bat dek-eta... Gu egingo
bagiña gela onen jabe...
LUIS Egingo gaituk, Lino.
LINO ¿Esan al diek mutill aiei?
LUIS Bai.
LINO ¿Ta zer? ¿Ez al ditek etorri nai?
LUIS Bai Gizona. Pozik zeudek etortzeko, baña...
LINO ¿Zer baña?
LUIS Bildur naizela zerbait igerriko ote dion.
LINO Nagusiak ez dizkik ezagutzen.
LUIS Alašen dek.
LINO Ta ezagutuko balitu ere ¿zer? ¿Ezin al dituk, ba, oiek ere etorri
erretratatzera beste edozein bezelaše?
LUIS Ori bai.
LINO Ikusiko dek; guzia ondo irtengo zaiguk Ua mutil oiengana, ta beriala
etortzeko; bazekitek zer egin.
LUIS Gaur nagusiari amorra eraziko zioagu. (Irten bedi)
LINO (eseriaz) ¡Ederki, ederki... ! Au ondo irtetzen bazaigu...

III

LINO, MUTIKOA ETA ERRETRATISTA

MUT. ¿Sartu al niteke?
LINO Aurrera.
MUT. ¿Erretratista echian al dago?
LINO Ez.
MUT. Amak esan dit oso arlotte dagola erretrato au ta berria egiteko. (Beti ots
batean, erdi-kantatua bezela)
LINO Ez dagoala echian nagusia.
MUT. Amak esan dit oso arlotte...
LINO Bai motell, aditu diat. Jarri adi emen, eta etortzen danian, esaiok berari.
MUT. (Erretratoa eskuan duala eseriaz) Amak esan dit oso arlotte dagola erretrato
au...
MUT. ¡Ja, ja, ja... ! Aušen ukán palta zana...
ERRE. (Sartuaz) Onela ezin bizi liteke. Batak gaizki dagola, bestea oker irten
dala, arek antzik ere ez daukala, onek... ¡au ez dek bizimodua!
MUT. (Esherita) Amak esan dit...
ERRE. ¿Zer da?
MUT. Amak esan dit oso arlotte dagola erretrato au, ta berria egiteko.
ERRE. ¡Ara bestea! (Erretratua artu beza) ¿Zer zeukak, ba, erretrato onek?
MUT. Amak esan dit oso arlotte dagola ta berria egiteko.
ERRE. ¡Aušen dek auše! ¡Jesus milla bider! Jarri ari, berialaše aterako diat berria-
ta. (Aulkia gañean jarri beza) Orrelaše... geldi... geldi... tira, egiña ziok.
MUT. Amak esan dit etorriko dala ordaintzera.
ERRE. Bai gizona, bai; gustatzen bazaio ordainduko dit.
MUT. (Ateratzerakoan) Amak esan dit...

ERRE. Baietz bada, baietz, joateko echera...
MUT. Amak...
ERRE. Ua emendik, motell... ¡Auše dek inpernua!

IV

LINO, ERRETRATISTA TA IJITOA

IJITOA Zu... zu... (atetik deika)
ERRE. Aurrera... (¡Au dek ichura ona!)
IJITOA Aizu...¿emen al da ze ori?
ERRE. Ez da itzik ere. ¿Zer esan nai dezu?
IJITOA Egiten diran zereko ze oiena emen al dan.
ERRE. ¡A! Erretratoak esan naiko duzu.
IJITOA Ori da. Merke egingo dirazu ¿e?
ERRE. Bai gizona, bai.
IJITOA Oso beatsua naiz ta...
ERRE. Jarri zaite piška batean.
IJITOA Ez daukat astirik egoteko. Berealaše nai nuke.
ERRE. ¡Aušen dek pazientzia...! Bereala ezin liteke.
IJITOA ¿Ezetz? Orduan, egindako orietako bat eramango det.
ERRE. ¿Baña zer diozu, gizona? Beste baten erretratoa nola emango dizut ba?
IJITOA ¿Zer ajola dio? Bat aukeratzera noa.
ERRE. (Zoroa baño areago dea au). Baña gizona, ¿zure erretratoa ala besterena bear dezu zuk?
IJITOA Nerea.
ERRE. Ta oiek beste batzuenak dirala ¿ez al dezu ikusten?
IJITOA ¿Bai? Nerea aukeratzera noa orduan.
ERRE. (Gizon onek zoratuko nau). Gizona, ez zazula orrenbeste astakeri esan...
IJITOA Aizu: nik ez det gero astakeririk esaten, ta kontu, bestela makilla onekin burua ausiko dizut.
ERRE. Etaitez asarretu, gizona. Tira, jarri zaite emen, eta oiek guziak baño erretrato obea aterako dizut.
IJITOA Ia ba. (Ešeri) ¿Illuntzerako emango al didazu?
ERRE. Ez, etzi arte ezin emango dizut.
IJITOA ¿Ta etzi arte emen egon bear al det eserita?
ERRE. Ez, gizona. Pitin batean egonda joango zera zure lanetara, berriz etzi erretratoaren billa etortzeko.
IJITOA Tira ba. Atera dotore dotore...
ERRE. Jarri tente, oi dezun bezela. (Anka zabalka jartzen da) Orrela ez. Bildu itzatzu anka oiek. (Okertuta ipiñiko ditu) Ezetz bada... zaude zutik.
IJITOA (Beretzat) (Au berriketaz erretrato bat ateratzeko) (Jartzen da tente)
ERRE. Jesus, Jesus... Besoak ondo ipiñi itzatzu.
IJITOA ¿Nola nai dezu ba? Au erretratatzalle astoa.
ERRE. Berriz esaten badezu, danak utzita joan egingo naiz. Iduki zazu burua zuzenago. Ez orrenbeste. Piska bat eskubirago. Ez orrenbeste. Jarri zaite parrez... Ez orrenbeste.
IJITOA ¿Ze arraio diozu?
ERRE. Irri-parrez jartzeko. (Ijitoa algaraka asten da) (Zoroa baño zorogo dek au). Ezpañak piska bat parre-antzean jartzeko... Ijitoak ezpañak osoro okertu bitza) Ez orrenbeste... egon... orrelaše... Begira onuntz...
IJITOA (Alcha ta erretratistarengana etorriaz) ¿Nora onuntz?

ERRE. ¡Ojala joango baziña! Ain ederki ipiñita... ¡polita egin diagu! Jarri zaitez berriz, ta nai duan bezela irten dedilla.
IJITOA (Makina irikitzerakoan) ¡Atšis... !
ERRE. ¡Kako zarra... ! Plaka galdu erazi didazu.
IJITOA Etorri egin zait bada ta...
ERRE. Ia oraingoan... geldi...
IJITOA ¡Ai! (Burua eskuz joaz)
ERRE. Gizona, ¿berriz?
IJITOA Eulia etorri zait ba ta, ¿utzi egingo al nion?
ERRE. ¡Jaungoiko maitea...! la irugarrengoa... Egon... ¡Bazan ordua! Etorri zaite etzi goizean.
IJITOA Ondo da. Etzi arte, ba, Jaungoikoak nai badu. Agur. (Bijoia)
ERRE. Zoatz gizona, zoatz... (Berarekin irtengo da, lagunduaz) Zoatz Jaungoikoarekin...

V

LUIS TA LINO

LUIS (Sartuaz) Laister dituk emen, Lino. Ikustekoak ikusiko zituagu
LINO Ia ba... Au amorrazita zegok. Orain dijoan ijito orrek kiškaltzen utzi dik...
LUIS ¡Bapo, bapo... ! Lantegi au laister guria dek, Lino.

VI

LUIS, LINO, ERRETRATATZAILE TA DARDARIZO

ERRE. (Sartuaz) Ori ijito biurria... Bekañeán jo ta botatzeko gogoa ematen zidan...
DARD. (Atetik eta dardaraka) ¿Sartu al leike?
ERRE. Aurrera. ¿Zer nai dezu?
DARD. Berealaše erretratatzea nai nuke.
ERRE. (Dardaraz ikustez arrituta) ¿Erretratatu nai dezula?
DARD. Bai jauna. Baña ez iztu dardaretako aundia detalako. Bi segunduan egon niteke geldi, nai izan ezkerro.
ERRE. (Bear dek emenche pazientzia...) Jarri zaitez emen. (¡Au arratsalde gorria gaurko!)
DARD. (Dardaraka ešeri bedi) Ezkalu bat bezin osasuntsua naiz ni. Dardarako pitin auše besterik ez daukat. (Dardarizo aundia agertuaz)
ERRE. Ori agirian dago, gizona. (Jarri beza Dardarizo makinari begira; burua alde batera erortzen zaiola ikustean, zuzen jarri bezao; bi edo iru aldiz ori bera egin bezate) Alperrik dek...
DARD. Ez... ez... Esan zaidazu noiz egon bear detan geldik, eta egongo naiz.
ERRE. Orainchen ba gizona, orainche... Gora burua; begira onuntz... Dardarizok bat-batean alcha beza burua indarrez, ta ao-zabalik gelditu bedi) Irten du.
DARD. Ederki irtengo zan. Ia erakutsi zaidazu...
ERRE. Berealaše... (Kristala artuta joan bedi)
DARD. (Luis ta Lino'ri) ¿Zer derizkiotzute? ¿Ondo egin al det nere papera?

LUIS. Bikain, motell.
 LINO. Itzegizak išillago, aditu egingo dik-eta.
 LUIS. ¡Emen dek!
 DARD. (Dardaraka) Bai... bai... nai detanean geldi egoten naiz.
 ERRE. Ara emen.
 DARD. Ia... ia ikusi. Baña ¿zergatik atera nazu aoa irikita?
 ERRE. Irikita zendukelako.
 DARD. Ez jauna, nik ichita neukan.
 ERRE. Ez ditugu oraindik denak entzun... Tonela baño geigo irikita zendukan, gizona.
 DARD. Ichita neukan. Nik ez det erretrato ori nai. (Lurrera jaurtiaz)
 ERRE. ¿Zoratuta al zaude, gizona?
 DARD. Zu zaude zoratuta, zu. ¡Atrebitu orrelako erretratoak ateratzen... !
 ERRE. Ara... zoaz lenbailen nere echetik...
 DARD. Bai, gizona, bai... banua. Baña biar ipiñiko det periodiku guzietan, zu zer zeran... iA zer erretratista auše... !
 ERRE. Zoaz emendik aguro...
 DARD. Aoa ichita jarri ta aoa zabalik atera... ¡A zer erretratista, auše... ! (Bijoia)

VII

LUIS, LINO, ERRETRATISTA, MOSKORRA, KONKORRA TA ICHUA

ERRE. ¡Zer deabru zan ori! Gaur egun ona diagu beintzat, arraiok ez padu...
 Bateonbati burua ausi ez diotanean e...
 LINO. Ez bedi estutu, nagusi... Gauza oek orrela izaten dira. Ez bedi estutu.
 ERRE. ¿Orrela izaten dirala? Gañez egiteko guchi bear diat ba orainche... Danak ankaz gora botata joango neok, eta or geldituko zerate etorriko diran alproja guziak erretratatzan.
 MOSK. (Konkorra ta Ichuakin sartuta gero) Nagusi...
 ERRE. (¿Zein degu au berriz? Moskortuta dago au...)
 MOSK. ¿Sartu al liteke?
 ERRE. Zu sartu zera beintzat-eta...
 MOSK. Tira ba...
 ERRE. ¿Zer nai dezu?
 MOSK. Ara ba. Oek biok, nere illobak dira, ta erretratatu egin nai ditut
 ERRE. Jarri ba.
 MOSK. ¡Et... et...! Poliki, poliki... Au konkor gabe atera bear dezu; au, bi begiak irikita dituala... Ta ni, moskorrik gabe.
 ERRE. ¡Baña gizona...! Lino, ekarri zazu zerra bat oni konkorra ebakitzeko; zuk, Luis, Santa Luzia'ri eskatu zaiozu oni begiak argitzeko, ta zu...
 MOSK. Berriketa guchi emen... Zuk egin zazu esandakoa, bestela ostikada galanta artuko dezu... nonbaiten.
 ERRE. ¿Zer? ¿Neri burla egitera etorri al zerate onuntz? Ikusiko degu ba.
 ¡Kanpora emendik! (Bultzaka bidaldu bitza)

VIII

GUZIOK

- TOMAS. ¿Emen erretratatzen al da?
ERRE. Bai.
TOMAS. Ia ba Ni kalegarbitzallien buru naiz, ta kuadrilla guziarekin erretratatu nai nuke. Baña ez orla... nola nai: gure tresna, gurdi, erratz, asto ta guzti.
ERRE. ¡Au dek ona berriz!
TOMAS. Berealaše dira emen guziak.
ERRE. Bana gizona ¿nola arrano sartuko dira bada emen asto, gurdi ta oiek?
TOMAS. Ez estutu. Utzi nere gain. Gurdiai gurpillak kendu dizkiogu, ta leiotik sartuko degu asto ta guzti. Emen dira danak. (Gurpillak eta erratzak eskuetan dituztela sartu bitez lau edo bost mutil)
ERRE. ¡Au dek istillua! (Dardarizo sartu bedi) ¿Ta zuk zer nai dezu emen?
DARDA. Ni nai detanean geldi egoten naiz.
ERRE. (Konkorra, Moskorra ta Ichua sartzen ikustean) ¿Ta zuek zertara zatozte berriz?
MOSK. Dantzan erretratatu bear gaituzu. (Asten dira irurak dantzan)
ERRE. ¡Kanpora emendik denok!
TOMAS. Nere kuadrilla erretratatu bearko dezu.
ERRE. ¡Zer kuadrilla ta zer deabru!
TOMAS. (Kale garbitzalle bati) I, garbitu zak gela au, chukun-chukun atera gaitezen (Garbitzen asitzen da)
ERRE. ¡Ago geldi, kankallu ori! ¡Au autsa... !
TOMAS. I, oa ta astoa ekarri zak aguro.
ERRE. ¿Astoa onera?
TOMAS. ¿Nora ba, onera ez-ta?
ERRE. Zoazte emendik inpernura. Ez; obe izango da neroni joatea. ¡Zer eche arrayo da au!
MOSK. Ez jauna; zu, geldi emen.
IJITOJA. Atera neri orainche bertan erretratoa.
MUT. Amak esan dit...
ERRE. Zoratu naute...
TOMAS. Ekarri astoa.
DARD. Ni, nai detanean...
MUT. Amak esan dit...
DARD. Ni konkor gabe atera gero...
IJITOJA. Ia nere erretratoa.
TOMAS. Garbitu zak gela berriz, i...
ERRE. Itoko naute... ¡Astoak... ! ¡Kito ta kito... ! ¡Luis... Lino... !
Luis, Lino. ¿Zer da, zer da?
ERRE. Eskribaurengana nua; zuentzat lantegi au, tresna ta guzi... Orrela ezin bizi liteke... Zuentzat guzia... (Bijoia)
LUIS. ¡Aufa mutillak! Guria dek. Ederki portatu zerate guziok.
GUZIAK. Ala ere noizbait bidaldu diagu gisichar ori. Ederki egin dezutelako, ta lantegia guretzat dalako, guziok alkarrerkin apalduko degu... ¡Guazen, mutillak... ! ¡Aufa! (Chapelak gora, chalo... ta abar)